

2023-2024 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTEKO ETXAURIKO UDALAREN BEKA DEIALDIA

Etxauriko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzaren zioen azalpenean aitortzen dira Etxauriko herritarrak mendeetan barrena hitz egin duten hizkuntzaren herentzia historikoa onartzeko borondatea, euskara herritar guztien kultur ondareztat eta udalerriaren berezko hizkuntzat hartzea eta herritarrek herrian hizkuntzaren sustapena eta normalizazioaren alde duten borondatea. Horren harira, ordenantza horrek aurreikusten du euskara ikasi nahi duten udalerriko helduentzat urtero beka deialdia egitea. Diru-laguntza hauek 2024. urteko aurrekontuaren kontura joango dira.

Udaleko Euskara Zerbitzuak, horretaz jakitun, beka deialdia argitaratzen du honako oinarriak dituen:

LEHENA.- XEDEA

Etxauriko herritar helduen artean, beka sistemaren bidez, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea. **Ikastaroak 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era egin behar dira**, bai modu estentsiboan (presentzialak, urrutikoak edo autoikaskuntzakoak), bai trinkoan ere (barnetegiak barne).

BIGARRENA.- ONURADUNAK

Beka eskatu ahal izateko honako baldintza minimoak bete behar dira:

- Eskaera aurkezten den egunean 16 urte beteak izatea.
- Etxaurin erroldatuta egon eta bertan bizitzea, gutxienez eskaera aurkeztu baino 6 hilabete lehenago.
- Etxauriko Udalarekin zerga guztiak egunean izatea.
- Azaroaren 17ko 38/2003ko diru-laguntzen lege orokorraren IV tituluan agertzen diren arau-hausteengatik zigorra jaso ez izatea.
- Goian aipatzen diren ikastaro horietako batean matrikulatuta egotea.

Halaber, eskatu ahalko dute beka aurreko ikasturtean egindako maila errepikatzen ari direnek (edo euskara ikasi zuten azken urteko maila), lehenengo errepikapena bada.

Baztertuta gelditzen dira deialdi honetatik Administrazio publiko batean edo haren erakunde autonomoetan lan egiten duten Etxauriko herritarrak, bertako euskalduntze planetan sartuta badaude.

Halaber, baztertuta gelditzen dira deialdi honetatik Etxauriko Udalak Euskara Zerbitzuaren bidez antolatzen eta diruz laguntzen dituen euskara ikastaroak, eta partikularrek emandako klaseak.

HIRUGARRENA.- ESKATZAILE ETA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan agertzen diren bekak edo diru-laguntzen eskatzaile edo onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Euskara Zerbitzuaren eskura izatea eskabideko datuei buruz eskatzen ahal zaien edozein egiaztatze edo argibiderako.
- Emandako dirua aurreikusitako helburura bideratzea. Horretarako, ikasturtearen bukaeran justifikatu beharko da gutxienez %70eko asistentzia. Autoikaskuntzaren kasuan justifikatu behar

da egindako ikastaroaren gutxieneko helburuak beteak izatea. Aipatutako bi ziurtagiriak ikastaroa egin den zentroaren ziurtagiri ofizialak izan beharko dira.

- Udaleko Euskara Zerbitzuari eskabidean eskatutako ikastaroaren baldintzen edozein aldaketa jakinaraztea.

LAUGARRENA.- AURREKONTUKO DIRU-ZUZKIDURA

Etxauriko udalak euskara ikasteko beka emateko aurrekontuko partida hornituko du 2024ko aurrekontuen kargura.

BOSGARRENA.- ESKABIDEAK

Eskabideak, beka hau argitaratzen denetik 2024ko irailaren 30era bitarte aurkeztu ahalko dira. Epea luzaezina izango da.

Eskabideak osorik bete beharko dira eta honako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira:

- Etxauriko Udaleko instantzia.
- Eskatzailearen IFZ/IEZ-ren fotokopia.
- Errenta aitopena.
- Ikastaroaren entitate antolatzailearen ziurtagiria; bertan zehaztuko dira maila, hasiera data, bukaera data, ordu kopuru orokorra eta ikastaroaren kostua.
- Beka jaso nahi duen bankuko kartilaren lehenengo orriaren fotokopia. Eskatzailea kontu horren titularra edo kotitularra izan behar da.
- Langabezia adierazten den eskabideetan egoera justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- Lehenago aipatutako aprobetxamendu ziurtagiria, emandako beka aurreikusitako helbururako erabili dela frogatzeko, hau da, klaseetan gutxienez %70eko asistentzia izatea, edo urrutiko ikastaroetan, egindako ikastaroaren gutxieneko helburuak beteak izatea.

SEIGARRENA.- ESKABIDEEN BALORAZIOA

Eskabideak ondoren adierazten den bezala baloratuko dira:

- Kontutan hartuko dira familiaren urteko diru-sarrera gordinak (errenta aitopeneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoetako kopuruen baturari, 708 laukitxoko kopurua kenduko zaio) familia unitatea osatzen duten pertsonen artean zatituta.
- Familiaren diru-sarrerak gordinentzat hartuko dira, beka eskatzen den familia unitatekoak direnak.
- Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitopenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo, aitopena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitopena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekin frogatu.
- Aurreko guztiak aparte, eskatzailearen familiako diru-sarrera errealak frogatzeko, Udalak beharrezkoak baiesten dituen froga-agiri guztiak eska ditzake.

ZAZPIGARRENA.- ZENBATEKOAK

Bekaren zenbatekoa gehienez ere 250 eurokoa izanen da lanean dabiltzan pertsonentzat eta 450 eurokoa berriz, langabezian daudenentzat eta ondorengo baremo ekonomikoaren arabera banatuko da:

PCE <5.000 €	%90
PCE 5.001 € eta 8.000 € artean	%70
PCE 8.001 € eta 10.000 € artean	%55
PCE 10.001 € eta 15.000 € artean	%35
PCE 15.001 € eta 20.000 € artean	%25
PCE >20.000 €	%15

Beken eskaera urte batekoa izanen da, eta ematea baldintzatuta egonen da eskatu duen ariketa ekonomikoan Udalak duen aurrekontua izateari.

ZORTZIGARRENA.- BEKAK EMATEA

Udaleko Euskara Zerbitzuak eskaera jaso eta hilabete bateko epean behin-behinean ebatziko ditu.

Behin-behineko ebazpena argitaratu ondoren, horrekin ados ez daudenek, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko ebazpenean adierazten den moduan eta epean.

Alegazioak aztertu ondoren, 2024ko abendua amaitu baino lehenago deialdia behin betiko ebatziko da.

Onuradunek behin betiko ebazpena jaso, eta hurrengo hilabetean kobratuko dute dagokien laguntza horretarako eman duten kontuan.

Udaleko Euskara Zerbitzuak informazio osagarria eskatu ahalko du eta diruz laguntzen dituen jarduerak ikuskatu eta kontrolatu ahalko ditu.

Oinarri hauek ez betetzeak emandako laguntza bertan behera uztea ekarriko du, emandako dirua itzuli beharko da eta hurrengo deialdian parte hartzeko eskubidea galduko da.

Beka ukatuko da edo dirua itzuli beharko da, bereziki, dirua eskatutako helbururako erabiltzen ez bada edo dokumentuak faltsutzen badira.

BEDERATZIGARRENA.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Arduraduna: Etxauriko Udala. Tratamenduaren Xedeak: Udalak emaniko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. Informazio gehigarria: Udal-weba www.etxauri.eus

Etxaurin, 2024ko martxoan

Idoia Aritzala Etxarren

Etxauriko alkatea – Alcaldesa de Etxauri